

Hasteko, guk lokal propioa eduki beharko dugu, lokal hau alokatua denez, hilabeteko 600€-ko gastuak ordainduko ditugu: zuzena, zuzenean ordainduko dugulako eta finkoa, beti berdina izango delako. Bertan ordenagailuak eta telefonoak edukiko ditugu. telefonoaren tarifa hilabeteko 32,5€-koa izango da, hau ere, zuzena eta finkoa. 2 ordenagailu edukiko ditugu, bakoitzak, 1200€ balio ditu. Armairua ekoizteko, behar izango ditugun materialen gastuak(egurra, ukipen pantaila(tableta), torlojuak, zirindolak, tirafondoak, errailak eta zura tintatzeko tinta) hau ere zuzena eta finkoa.

Armairuak ekoizteko fabrika eta biltegi bat izango ditugu. Hauek alokatuak direnez, hilean, bien batura 4000€koa izango da, hau kostu zuzena eta finkoa izango da. Makinen eta tresnerien kostu totala 2500€koa da. Guk erosi ditugunez, ez da beharrezkoa hilero ordaintzea. Gure enpresako langileen soldata ere ordaindu beharko dugu.